

BERBAROTARRA 15. zk. 1997ko uztaila

Euskaraz egin gura deutsot medikuari!


Izen horrekin Berbarok sentsibilizazio kanpaina barribati emango dio hasiera. Helburua, Osakidetzak Durangon Zerbitzu euskaldunagoa eskeini dezan lortzea da. Horretarako, bazkideon partehartzea oso garrantzitsua da. Durangon, gaur egun, euskaldun eta ia euskaldunak % 72 gara. Egoera honi ez dio erantzuten.

Mediku euskalduna gura izan dugunok, esaterako, ez dugu lortu. Pediatrian, 2 urtetik 14 urtera arteko ume euskaldunen kopurua %80 dela kontutan hartuta, zerbitzuan dauden 3

medikuak erdaldunak dira. Egoera honen aurrean, lege aldetik zeozer egiten ahalegindu arren, bideak itxi egiten dira. Hori dela eta, Berbaroko bazkide eta gainontzeko durangarrei boletín honekin batera etxera heldu zaizuen erreklamazio inprimakia bete dezazuen eskatu gura izan dugu.

Inprimaki gehiago behar izan ezker, Berbaron eskatu. Eta


behin erreklamazioa beteta Berbaro Tabernan edo Bulegoan utzi azaroaren 20a baino lehen. Benetan, kanpaina berri honetan bazkideon partehartzea oso garrantzitsua eta funtsezkoa da.



Ardo ezberdinak ezagutzeko aukera

Azaroan zehar ardoari buruzko ikastaro laburra eskeiniko dugu. Bazkideentzat merkeago izango den lehen ekintza duzue honako hau. Azaroaren 5ean hasi eta asteazken eta ostegun guztietan arratsaldeko 19.30etatik 21.00etara Berbaroko Txokoan ardoaren sekretu guztiak ezagutzeko aukera izango da. Baina ezagutzeaz gain egunero ardo ezberdinak


dastatzeko aukera ere izango da. Azken egunean gainera afaria izango da. Mikel Garaizabal enologoa



izango da ikastaro buru eta Gaztelurrutia ardoen laguntza izango dugu horretarako. Ikastaroan partehartzeko bazkideek 3.500 pta eta gainontzekoek 4.000 pta ordaindu beharko dute. Prezioaren barne eguneroko dastaketak eta azken afaria daude. Ikastaro honetan parte hartu nahi duenak urriaren 31 baino lehen izena eman beharko du Berbaroren Bulegoan.

Tabernari berriak

Maiatzean Asier Iturriagak utzi zuen taberna eta orain, urrian Joselu Bikandik. Beraz, hurrengo tabernara zoztutenean aurpegi berri-berriekin egingo duzue topo; Idurre Gaztañazatorre, durangarra, 25 urte, eta Isaac Erdoiza, abadiñarra, 22 urte. Bi hauek dituzue Berbaro Tabernako langile berriak. Orain arte Joselu izan da tabernako buru. Gustoko lana aurkitu eta utzi egin gaitu. Dana dala, tabernatik sarritan ikusiko dugu, barraren bestaldean bada ere. Orain arte egindako lan guztiagatik eskerrak eman barik ezin dugu gelditu.



98ko agenda

*Berbaro Elkarteak
98. urterako agenda
izango du salgai
koste prezioan.
Euskarazko agenda
bat euskaratu nahi
baduzu,
lehenbailehen deitu
620 19 18
telefonora.
Interesatuok
azaroaren amaiera
orduak deitu
mesedez, enkarguz
ekarriko baitira.*

Kamiseta berriak

Jaietarako kamiseta berriak atera ditugu. Lau kolore eta bi modelo. Urdina, berdea, beltza eta horia; manga laburra eta

luzea. Berbarotarrarako kontratatu ditugun modeloek erakusten ditugun moduan, edozein erropetara

eta gorputzetara ondo egokitzen diren kamisetak dira. Eta eman ahal diegun erabilpenerako, merke-merkeak: 2.000 pta baino ez.


Zuk zeuk kamisetaren bat eskuratu nahi baduzu, Berbaro Tabernan aurkituko dituzue modelo eta neurri guztiak.



Loteria jasoko duzue etxean

Gabonetako loteria saltzen hasteko sasoa heldu da, San Fausto jaiak amaituta. Aurten ere, iaz egin bezala, Berbaroko bazkide guztien partaidetza eskatu gura dugu zeregin honetan. Laister 20 papeletako talonarioa jasoko

duzue etxean. Hala ere, **argi utzi gura genuke ez dela derrigorra papeletak saltzea.** Norbaitek loteria saltzeko zailtasunik izango balu edo beste barik saltzea nahi ez badu, lehenbailehen Berbarora deitu (620 19 18) dezala eta ez zaio talonariok bidaliko. Bidalita ere, bueltan bidaltzeko aukera izango duzue. Ez genuke nahi inork ezetz esaten ausartu ez eta bere burua loteria saltzera derrigor tuta ikustera.



“Ez da derrigorra loteria saltzea”

laburrak laburrak laburrak laburrak

Rock kantu lehiaketa. Berbarok eta Barriketanek elkarrekin antolatuta rock kantu eta letren lehiaketa azken fasean aurkitzen da. Ekainean lean irabazlea aukeratu zen, Imanol Garaizabalorriarrakegindako “Estoldetan” lana hain zuzen. Orain letra horri musika jartzea falta da. Egin behar horretarako Durangaldeko zazpi musika taldek eman dute izena: Sakatu, Irao, Non Demon-tre, Eta zer, Sapuk, Durangoko talde berria eta Kaka de Baka. Guztiek azaroaren 21 edo 22an Elorrioko Gaztetxean egingo den kon-zertuan jo beharko dute.

Euskal Herriko Ber-tsolari Txapelketa Na-gusia. Martxan dago irailaz gero. Eta bertan hiru Berbarokide partehartzen ari dira. Abenduaren 14an amaituko da txapelketa. Azken saioa, Donostiako belodromoan izango da. Hori dela eta, finalera joateko autobusa jartzeko aukera dago Berbarotik. Baina horretarako, jende kopuru jakin batek izena eman behar du. Berbarokideren bat finalean ikustea gata ez da izango. Gure animoak eskertuko dituzte. Horretatik eman izena lehenbailehen.

XXIII. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. Abenduaren 4tik 8ra bitartean, beste urtebetetz, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka egingo da. Aurten hogeitama irugarrenez. Egun hoietarako Gerediagarekin batera proiektu barri bati ekingo dio Berbarok eta horretarako laguntza handia behar izango da. Hori dela eta, dei zabala egiten zaizue Bazkide zaretan guztioi ahal duzuen neurrian zuek ere laguntzaile aktiboak izan zaitezten. Informazioa zehatzagoa aurrerago helduko zaizue etxera.


laburrak laburrak laburrak laburrak

Antzerkia eta Bertsolaritza

Guezan Ba eta Bagabiz gazte taldeok ikastaro berri bi prestatu ditugu ikasturte honetarako. Antzerkilaritza eta bertsolaritza lantzeko aukera emango digute ikastaro hauek.

15 urtetik gorakoentzat, hau da, bigarren DBHtik aurrerakoentzat izango dira ikastaroak. Astegunetan eta asteburuetan emango dira. 16 orduko iraupena izango dute eta bazkideek 2.200 pta eta besteek 2.600 pta ordaindu beharko dute.

Ikastaroan partehartu gura duenak urriaren 31 baino lehen eman beharko du izena bulegoan. Biak ere hasiera ikastaroak izango badira ere, jarraipena izango dute.



Guezan Ba!

Agendan apuntatzeko

Goian ikastaroen berri eman badizuegu ere, zuen agendan apuntatzeko irteera birekin gatoz orain.

Azaroaren 30ean Elorriorako trenbide zaharrean zehar ibilbidea egingo dugu. Orientering egin ta gero Astolako kartzela bisitatzeko

aukera ere izango da.

Eta Gabonetarako, txikitxoei begira, Bilboko umeen gabonetako parkera irteera antolatu dugu abenduaren 20rako. Bi irteera hauen berri bulegoan izango duzue. Agenda hartu, apuntatu eta zatozte gurekin.